

**HOTEL ESTABLEZIMENDUETAN OSTATU EMATEKO ZERBITZUAK
KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOA.**

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

**ACUERDO MARCO PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE
ALOJAMIENTO EN ESTABLECIMIENTOS HOTELEROS.**

- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS -

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: AREA DE BIENESTAR SOCIAL, EDUCACIÓN Y
JUVENTUD.

EXPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 2017ZAPA0013

1- OBJETO

Es objeto de la presente convocatoria la suscripción de un acuerdo marco con uno o varios empresarios capaces de prestar LOS SERVICIOS DE ALOJAMIENTO EN ESTABLECIMIENTOS HOTELEROS situados en un radio de 5 km desde las oficinas del Área de Bienestar Social del Ayuntamiento de Irun, con arreglo a lo dispuesto en el presente Pliego de condiciones Técnicas.

Los establecimientos hoteleros deberán:

- Estar situados en un radio de 5 km de distancia desde las oficinas del Área de Bienestar Social.
- Cumplir todos los requisitos exigidos por la normativa sectorial para le ejercicio de la actividad de hospedaje en función de su categoría y clasificación.

Excepcionalmente, podrá autorizarse la contratación de empresas no seleccionadas en este procedimiento cuando circunstancias particulares así lo aconsejen, incluso localizadas fuera del municipio de Irun (para proporcionar una mayor protección a la persona y/o familia, por razones de no disponibilidad de plazas en Irun, etc.)

2- ANTECEDENTES

El Excmo. Ayuntamiento de Irun precisa de la contratación de establecimientos hoteleros con el objetivo de prestar servicios de alojamiento para responder a una obligación competencial que queda recogida en las siguientes normativas:

- En la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, establece en su artículo 22 los Servicios Sociales de atención primaria, entre los que se menciona: "servicios de acogida nocturna" como responsabilidad municipal.
- Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, donde delimita la obligación de cada nivel de las administraciones públicas vascas respecto a los servicios y prestaciones económicas de obligada provisión. En este sentido se recoge como competencia municipal: "servicio de acogida nocturna". Dado que este ayuntamiento por el momento no cuenta con centros de este tipo, es necesario poner en marcha el presente Acuerdo Marco para la prestación de estos servicios.

En este mismo decreto se determina la competencia municipal para atender las necesidades de alojamiento de urgencia.

- La Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, en su artículo 1 que modifica la Ley 7/1985, de 2 de abril,

reguladora de las Bases de Régimen Local, establece como competencia propia del Municipio (art. 25.1e) la " Evaluación e información de situaciones de necesidad social y la atención inmediata a personas en situación o riesgo de exclusión social".

En este sentido el Área de Bienestar Social quiere poner en marcha un programa de alojamiento en hoteles, por un lado para personas o familias en situación de riesgo y necesidad social como consecuencia de la pérdida temporal de la vivienda habitual, ya sea por siniestro, desalojo (casos de viviendas en ruina o deshaucios), conflictos familiares (malos tratos, expulsiones del hogar habitual, etc.) o la carencia de alojamiento por unas situaciones sobrevenidas y temporales, y por otro, para personas sin hogar en situación de riesgo y vulnerabilidad social.

3- SITUACIONES A ATENDER

En los casos en los que desde el Servicio de Atención Primaria del Área de Bienestar Social, Educación y Juventud se valora que existe una situación de desprotección como consecuencia de que personas/familias carezcan de vivienda, se ofrece a los interesados un alojamiento con el fin de responder a esta situación de necesidad básica. De esta forma, se proporcionarán a las personas que se encuentren en esta situación, plazas en centros hoteleros en dónde pernoctar. Asimismo se proporcionará la manutención (desayuno, comida y cena) en el caso de que el Servicio de Atención Primaria lo considere necesario. De esta forma se pretende responder a:

- Situaciones de urgencia (situaciones producidas por un hecho no previsto debido a causas naturales o provocadas ante la carencia de alojamiento)
- O situaciones en las que de forma planificada se valora que es el recurso adecuado en base al diagnóstico inicial de la situación.

Estos servicios serán gratuitos para las personas beneficiarias.

4- PERSONAS BENEFICIARIAS

Personas o familias que se encuentren en nuestro municipio pudiéndose tratar de personas empadronadas o no empadronadas en el municipio, en situación de desprotección social como consecuencia de la pérdida temporal de la vivienda habitual, ya sea por siniestro, desalojo (casos de viviendas en ruina o deshaucios), conflictos familiares (malos tratos, expulsiones del hogar habitual, etc.) o la carencia de alojamiento por unas situaciones sobrevenidas y temporales.

Las personas beneficiarias del programa serán mayores de edad, o en el caso de menores, éstos estarán acompañados por sus progenitores o tutores legales.

5- PRESTACIÓN DEL SERVICIO

Los establecimientos hoteleros deberán prestar los siguientes servicios:

5.1 Servicio de Alojamiento:

Se proporcionará alojamiento en una habitación con acceso a baño y productos básicos para la higiene personal (jabón, toallas...)

Se prevé que los tipos de habitación requeridos serán los siguientes:

- Habitación individual con o sin baño
- Habitación doble con o sin baño
- Habitación triple con o sin baño
- Cama supletoria
- Habitación cuádruple con o sin baño

El Servicio de Atención Primaria determinará en cada momento el tipo de habitación que se necesite en función de las necesidades de cada caso. En los casos en los que las necesidades y el tipo de habitación que esté libre no sean coincidentes, este Servicio determinará las condiciones definitivas en las que se realice el alojamiento.

5.2 Servicios de Manutención:

En los casos en los que el Servicio de Asistencia Social así lo considere necesario, además del servicio de alojamiento, el establecimiento hotelero deberá proporcionar manutención a la(s) persona(s) beneficiaria(s).

En este caso, la manutención consistirá en la elaboración y suministro de las siguientes tres comidas diarias:

- Desayuno (lácteos, café o similares, cereales o similares)
- Comida (plato combinado)
- Cena (plato combinado)

6- INCIDENCIAS

Los establecimientos hoteleros estarán obligados a informar inmediatamente a la Trabajadora Social referente de cualquier incidencia en relación a los servicios prestados (problemas de comportamiento, actitudes amenazantes o agresivas, faltas de respeto...).

De la misma forma, el establecimiento hotelero deberá informar de forma urgente a la Trabajadora Social referente en las siguientes circunstancias:

- En caso de la no utilización por voluntad propia del Servicio de Alojamiento por parte de la(s) persona(s) beneficiaria(s) del mismo.
- En caso de que pernocten personas diferentes a las autorizadas.

7- PROCEDIMIENTO

El procedimiento a seguir será el siguiente:

1. La detección del caso se realizará por parte de los Servicios Sociales de Atención Primaria de este Ayuntamiento.
2. La Trabajadora Social de referencia realizará el diagnóstico de la situación, valorará la situación de necesidad y determinará las necesidades de alojamiento de la(s) persona(s) beneficiaria(s) (tipo de habitación, ubicación preferente, necesidad de manutención, duración del alojamiento...)
3. La Trabajadora Social contactará con la empresa hotelera, informará de las necesidades de alojamiento e identificará a la(s) persona(s) beneficiaria(s).
4. En los casos en los que por circunstancias concretas (para proporcionar una mayor protección a la persona y/o familia, por razones de no disponibilidad de plazas en Irun, etc) así se considere, se podrá contactar con establecimientos hoteleros sitios en municipios distintos de Irun y que no sean adjudicatarios del Acuerdo Marco.
5. Excepcionalmente, fuera del horario de apertura de los Servicios Sociales, será la Policía local la que gestione la necesidad de alojamiento con el establecimiento hotelero, acompañando a la(s) persona(s) beneficiaria(s) hasta el mismo.
6. En todo caso, se realizará un seguimiento activo del caso por parte de la Trabajadora Social referente del mismo, debiendo el establecimiento hotelero comunicar toda incidencia tal y como se establece en la cláusula 5ª.
7. Se comunicará a la empresa el fin de la prestación del servicio en cada caso.

**HOTEL ESTABLEZIMENDUETAN OSTATU EMATEKO ZERBITZUAK
KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOA.**

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

**ACUERDO MARCO PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE
ALOJAMIENTO EN ESTABLECIMIENTOS HOTELEROS.**

- PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS -

**ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA: GIZARTE ONGIZATEA, HEZKUNTZA ETA
GAZTERIA ARLOA / AREA DE BIENESTAR SOCIAL, EDUCACIÓN Y
JUVENTUD.**

EXPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE: 2017ZAPA0013

1. XEDEA

Deialdi honen xedea da esparru-akordio bat izenpetzea Irungo Udaleko Gizarte Ongizatearen arloko bulegoetatik 5 km-ko eremuan HOTEL ESTABLEZIMENDUETAN OSTATU ZERBITZUAK emateko gai den enpresaburu batekin edo batzuekin, baldintza teknikoen plegu honetan xedatutakoaren arabera.

Establezimenduei dagokienez:

- Gizarte Ongizate Arloko bulegoetatik 5 km-ko eremuan egon beharko dute.
- Ostatu-jarduera bere kategoriaren eta sailkapenaren arabera gauzatzeko araudi sektorialak exijitutako betekizun guztiak bete beharko dira.

Salbuespenez, prozedura honetan hautatu ez diren enpresak kontratatzea baimendu ahal izango da, inguruabar bereziek hala aholkatzen badute, baita Irundik kanpo izanda ere (pertsonari eta/edo familiari babes handiagoa emateko, Irunen tokirik ez dagoelako, ...).

2. AURREKARIAK

Irungo Udalak hotel-establezimenduak kontratatu beharra dauka, ostatu-zerbitzuak emateko, honako araudi hauetan jasota geratuta dagoen eskumen-obligazioari erantzuteko:

- 12/2008 Legean, abenduaren 5ekoan, Gizarte Zerbitzuei buruzkoan, bere 22 artikuluan ezartzen baititu lehen mailako gizarte-zerbitzuak, eta, besteak beste, honako hauek aipatzen ditu: “Gauzez abegi egiteko zerbitzuak”, udalaren ardura gisa.
- 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio-eta zerbitzu-zorroari buruzkoa. Horretan, maila bakoitzeko euskal administrazio publikoen obligazioa zehazten da, derrigorrez hornitu beharreko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei dagokienez. Alde horretatik, udalaren eskumen gisa jasotzen da: “gauzez abegi egiteko zerbitzua”. Udal honek oraingoz horrelako zentrorik ez duenez gero, beharrezkoa da Esparru Akordio hau abian jartzea zerbitzu horiek emateko.

Dekretu horretan bertan zehazten da larrialdiko ostatu-beharrei erantzuteko udalak duen eskumena.

- 27/2013 Legean, abenduaren 27koan, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoan. Honen 1. artikulua (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du) udalerrriaren beraren eskumena dela ezartzen du (25.1e) artikulua) “Gizarte-premia duten egoeren

ebaluzioa eta informazioa, eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta”.

Alde horretatik, Gizarte Ongizate Arloak hoteletan ostatu emateko programa bat abian jarri nahi du, alde batetik, gizarte-beharrean eta arriskuan dauden pertsona edo familientzat: izan daiteke ohizko etxebizitza aldi baterako galdu dutelako, izan daiteke istripuagatik, izan daiteke kaleratu dituztelako –etxeen aurri-kasuak edo etxegabetzeak–, izan daiteke familia-gatazkengatik (tratu txarrak, ohizko etxetik botatzea,...) Edo izan daiteke bat-bateko eta aldi bat-bateko egoerengatik ostaturik ez dutelako, eta, bestetik, gizarte-zaurgarritasun eta arrisku egoeran dauden etxegabeentzat.

3. ERANTZUN BEHARREKO EGOERAK

Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria Arloko Lehen Mailako Zerbitzutik baloratzen denean babesgabetasun-egoera bat dagoela pertsonen/familiak etxebizitzarik ez dutelako, ostatu bat eskaintzen zaie interesdunei, oinarrizko behar-egoera horri erantzuteko. Horrela, hotel-establezimenduetan gaua pasatzeko tokia emango zaie egoera horretan dauden pertsonen. Era berean, mantenua emango zaie (gosaria, bazkaria eta afaria), Lehen Mailako Zerbitzuak beharreko baderitzo. Honela, honako hauek erantzun nahi dira:

- Larrialdiko egoerak (kausa naturalengatik edo bizitokirik ez edukitzeagatik ustekabeko egoera batek eragindako egoerak).
- Edo, egoeraren hasierako diagnostikoan oinarrituta, modu planifikatuan baloratzen bada baliabidea egokia dela.

Zerbitzu horiek doakoak izango dira onuradunentzat.

4. PERTSONA ONURADUNAK

Gure udalerrian gizarte-babesgabetasunezko egoeran dauden pertsonak edo familiak, udalerrian erroldatua egon edo ez: izan daiteke ohizko etxebizitza aldi baterako galdu dutelako, izan daiteke istripua izan dutelako, izan daiteke etxegabetu dituztelako (aurri-egoerazko kasuak edo etxegabetzeak), izan daiteke familian gatazkan dituztelako (tratu txarrak, ohizko etxetik botatzea, ...). edo izan daiteke bizitokirik ez dutelako bat-bateko eta aldi baterako egoera batzuen ondorioz.

Programaren onuradunak adin nagusikoak izango dira, edo, adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek lagunduta egon beharko dute.

5. ZERBITZUAREN PRESTAZIOA

Honako zerbitzu hauek eman beharko dituzte hotel-establezimenduek:

5.1 Ostatu-zerbitzua:

Ostatu emango da bainugela-aukera duen gela batean, eta higiene pertsonalerako oinarrizko produktuak ere emango dira (xaboia, toallak...).

Aurreikusten da honako gela-mota hauek beharko direla:

- Banako gela, bainugelarekin edo gabe
- Gela bikoitza, bainugelarekin edo gabe
- Gela hirukoitza, bainugelarekin edo gabe
- Ohe gehigarria
- Gela laukoitza, bainugelarekin edo gabe

Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak erabakiko du une bakoitzean zein gela-mota behar den, kasu bakoitzaren beharrak kontuan hartuta. Beharrak eta libre dagoen gela bat ez badatoz, zerbitzu honek erabakiko du ostatua zein baldintzatan emango den.

5.2 Mantenu-zerbitzuak:

Gizarte Laguntzako Zerbitzuak beharrezko ikusten duenean, ostatu-zerbitzuaz gainera, hotel-establezimenduak mantenua ere eman beharko dio pertsona onuradunari.

Kasu horretan, eguneko honako hiru otordu hauek prestatu eta eman beharko dira:

- Gosaria (esnekiak, kafea edo antzekoak, zerealak edo antzekoak)
- Bazkaria (plater konbinatua)
- Afaria (plater konbinatua)

6. GORABEHERAK

Hotel-establezimenduak behartuta egongo dira gizarte-langileari berehala jakinaraztera, emandako zerbitzuetan edozein gorabehera gertatzen bada (jokabide-arazoak, mehatxu-jarrerak edo jarrera oldarkorrak, errespetu falta...).

Era berean, hotel-establezimenduak premiaz jakinarazi beharko dio gizarte-langileari honako edozein inguruabar gertatzen bada:

- Ostatu-zerbitzuaren onuradunak zerbitzua bere borondatez erabiltzen ez badu.
- Baimendutakoak ez diren beste pertsona batzuek gaua pasatzen badute.

7. PROZEDURA

Honako prozedura hau bete beharko da:

8. Udal honetako Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuek antzemango dute kasua.
9. Erreferentziatzko gizarte-langileak egingo du egoeraren diagnostikoa; beharra baloratuko du eta onuradunaren ostatu-beharrak erabakiko ditu (gela-mota, lehentasunezko kokalekua, mantenu-beharra, ostatu-iraunaldia...).
10. Gizarte-langilea hotel-enpresarekin harremanetan jarriko da, ostatu-beharrak jakinaraziko dizkio eta onuraduna identifikatuko du.
11. Inguruabar jakin batzuegatik (pertsonari/familiari babes handiagoa emateko, Irunen tokirik ez dagoelako,...) hala behar duela erabakitzen bada, Irundik kanpoko hotel-establezimenduekin harremanetan jarri ahal izango da, nahiz eta ez izan esparru-akordioaren esleipendunak.
12. Salbuespenez, gizarte-zerbitzuak irekitzeko ordutegitik kanpo, Udaltzaingoak kudeatuko du ostatu-beharra hotel-establezimenduarekin, eta haraino lagunduko dio onuradunari.
13. Nolanahi ere, kasuaren jarraipen aktiboa egingo du erreferentziatzko gizarte-langileak, eta hotel-establezimenduak gorabehera ororen berri emango du, 5. Klausulan ezartzen den bezala.
14. Enpresari jakinarazi egingo zaio, kasu bakoitzean zerbitzua amaitu denean.